

G U T U N A K

Kaixo, Karla naiz, hamaika urteko neska andoaindarra. 1,53m neurtzen dut, ile marroia, begi ilun-ilunak eta azala ere oso iluna dut. Nire lagunek diote oso alaia naizela. Nire etxean lau gara: Kattalin, (ama) Antonio, (aita) Jon (neba txikia) eta ni. Nik amona gurekin bizitzea nahiko nuke. Nire eskolako lagun guztiak amona etxean dute eta beraien txikitako gauzak kontatzen dizkiete. Nik ere amona gertu izan nahi dut, baina ez dut ezagutzen. Amak dio Londresera joan zela bizitzera. Hori zen nire kezka eta nahia, gutun bat jaso genuen arte:

Familia maitea:

Martxela amona naiz, Londresen bizi naizen amona. Zuek ikusteko gogoia dudanez, asteazkenean joango naiz zuengana eta hilabete bat geldituko naiz zuekin. Joan zaitezte nire bila Hondarribiko aireportura, eguerdiko hamabietan, mesedez.

Martxela

“Beraz egia da ! Nire amona Londrestik etorriko da ni bisitatzerara ! Hau poza ! Seguruenik oso amona polita eta atsegina izango da, istorio politak kontatzen dituzten horietakoa! Primeran pasatuko dugu!” pentsatu nuen eta berehala joan nintzen nire lagunei kontatzera.

Asteazkena iritsi zen, baita amona ere, baina bere itxura ikustean aurpegia aldatu zitzaidan. Zotz bat baino argalagoa zen amona eta aurpegian grano eta zimur ugari zeuzkan. Txaketa, gona, eta alpargatak zituen jantzita.

Bere ile zuri eta fina sorbaldaraino iristen zitzaion. Ez zirudien oso atsegina, baina nik ez nuen itxaropenik galdu.

Amonarengana hurbildu nintzen eta honela esan nion:

-Amona, gertatu al zitzazun zerbait harrigarria zure haurtzaroan ?

-Ez.

-Konta iezadazu Londresko zerbait.

-Orain ez dut astirik. Zoaz nebarengana !

Alferrik zen. Nire amona ez zen batere atsegina, ezta ipuinzalea ere.

-Barkatu, atseginagoa izango zinela espero nuen.-esan nion eta nire logelara joan nintzen.

Ondorengo egunak guztiz arruntak izan ziren, amona ez balego bezala. Lagunei kontatu nien nolakoa zen nire amona, eta denak barre egin zidaten.

Handik egun batzuetara amona nire logelan sartu zen eta honela esan zidan:

-Karla, sekretu bat esaten baldin badizut, inori ez diozula esango zin egiten al didazu?

-Beno, bai.

-Ba, begira. Londresetik gertu bada aspaldi erre zuten mendi bat. Ba, egun batean hara joan nintzen eta ba al dakizu zer aurkitu nuen? Arrautza bat. Arrautza hura nire etxera eraman nuen eta handik ordu batzuetara animalia arrosa bat atera zen barrutik. Animalia honek hegalkak ditu, isats luze-luzea, eta letagin zorrotzak, baina maitagarria da. Dagoeneko metro bat neurtzen du. Erakutsiko dizut egunen batean.

Hau esan ondoren gelatik atera zen amona. Ni oso pozik nengoen. Hasieran ez nion ezer sinetsi, baina istorioa gustatu zitzaidanez hurrengo egunean gehiago kontatzeko eskatu nion.

Amonak istorio piloa kontatu zidan: behin suge bati bizia salbatu ziola, oihanean elefanteen gainean ibili zela, ilargira joan zela espaziuntzi gorri batean, bere eskolan aztikeriak ikasten zirela ...

Nik arretaz entzuten nion dena. Hura bai atsegin nuela. Amona gurekin zegoen bitartean ez nintzen aspertzen. Baina amona Londresera itzultzeko garaia ere iritsi zen. Hala, amona Londresen eta ni hemen. Horrela gaude orain.

Hara, amonaren gutun bat iritsi da oraintxe:

Karla maitea:

Martxela naiz, gogoratzen al zara nitaz? Ni zutaz bai, horregatik idazten dizut gutun hau. Agian, hau irakurtzean haserretu egingo zara nirekin, ulertzen dut. Zurekin oso ondo pasa nuen istorioak kontatzen, baina horixe ziren, istorioak.

Orain arteko denbora, Londresen, oso asperturik pasa dut, istorioak idatzi eta idatzi, irakurri eta irakurri, batere lagunik gabe, ez baitakit ingeleraz. Nire txikietako garaia oso arruntak izan ziren. Nik eskolan oso nota txarrak ateratzen nituen, baina irudimen handia nuela esaten zidaten. Horregatik idazten ditut istorioak. Zuri ere istorioak gustatzen bazaizkizu, irakur itzazu. Liburuetan oso istorio politikak kontatzen dira. Era askotako liburuak daude: abenturazkoak, beldurrezkoak, luze-luzeak, laburrak, hemen gertatutakoak, ilargikoak... nik kontatu nizekizun istorioak liburu batzuetan irakurri ditudanak ziren. Zuk ere irakur ditzakezu zure adinerako diren liburuak. Nik ere idatzi ditut liburu batzuk: " Basoko etxe bakartia", "Loro xelege bat", " Anek bere txirula nahi du"... irakurtzeak irudimena askatzen laguntzen du. Gogoan har ezazu esan dizudana.

Martxela

Haserretu ! Nola haserretuko naiz ba, oraintxe konturatu bainaiz amona zoragarria dudala. Orain inoiz baino gehiago amona bisitatzeko gogo du. Eta sorpresa bat emango banio? Hori da ! Londresera joan al gaitezkeen galdetuko diot amari. Ze pozik jarriko den amona !